

PARQUE TECNOLÓGICO - TEKNOLOGI ELKARTEGIA, S.A.-REN ETIKA ETA GOBERNU ONAREN KODEA

Dokumentu honen bidez egokitzen da PARQUE TECNOLÓGICO - TEKNOLOGI ELKARTEGIA, S.A. *"Eusko Jaurlaritzako kideen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren zerbitzura dauden goi-kargu, behin-behineko langile eta zuzendaritza-karguen Etika eta Gobernu Onaren Kodean"* ezarritakora.

**Parque Tecnológico – Teknologia Elkartegia, S.A.-ren
Administrazio Kontseiluak onartua
2011ko abenduaren 14ean**

1.- XEDEA

PARQUE TECNOLÓGICO - TEKNOLOGI ELKARTEGIA, S.A.-ren Etika eta Gobernu Onaren Kodearen xedea da pertsona ororen (langileak eta zuzendaritza-kideak) portaerak, bere funtzioak betetzerakoan nahiz harreman profesionaletan, zuzendu behar dituzten printzipio eta arauak ezartzea, gardentasunez, eraginkortasunez eta legez ezarritakotik haratago.

2.- APLIKAZIO-EREMUA

Portaera-kode hau PARQUE TECNOLÓGICO - TEKNOLOGI ELKARTEGIA, S.A.-ko pertsona orori aplikatuko zaio (hemendik aurrera Sozietatea).

SPRI Taldeko sozietateen Administrazio Kontseiluetako kide diren Sozietateko pertsonak, horrez gain, dagokien sozietateko Administrazio Kontseiluaren Araudian (Kode Deontologikoa) ezarritakoa beharko dute. Era berean, Taldekoak ez diren sozietateen Administrazio Kontseiluetan parte hartzen badute, honako dokumentuan jasotzen diren antzeko printzipio eta baloreak dituzten kode etikoak hartzea sustatuko dute.

3.- PRINTZIPIO OROKORRAK

Kode hau bete behar duten pertsonak, beren funtzioak betetzerakoan, antolamendu juridikoak ezarritakoa beteko dute eta honako printzipio eta balio etiko hauek ere beteko dituzte:

- Objektibotasuna.
- Efikazia, efizientzia eta errentagarritasun soziala.
- Dedikazio osoa, fede ona eta eredugarritasuna.
- Austeritatea eta zintzotasuna.
- Gardentasuna, irisgarritasuna eta konfidentzialtasuna.
- Herritarren parte-hartzea eta lankidetzeta.
- Erantzukizuna eta elkarlana.

4.- BALIO ETA PRINTZIPIO DEMOKRATIKOAK ERRESPETATZEA

Kode hau bete behar duten pertsonak beren jardueretan berdintasun, askatasun, justizia eta aniztasun politikoaren printzipioak betetzen direla bermatuko dute.

Beren portaerak giza eskubideak eta askatasun publikoak errespetatuko dituzte guztiz.

Ez dute jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi, sexu-joera edo bestelakoegoera pertsonal, politiko edo sozialen batengatik diskriminazioa sordezakeen jarduerarik gauzatuko.

Tolerantzia jokatu dute, eta aniztasuna sustatu dute beren jardueretan. Horrek esan nahi du forma kultural, politiko eta sozial guztiak errespetatu dituztela, aintzat hartu dituztela eta onartu dituztela, beti ere giza eskubideak errespetatzen badituzte eta indarkeriarik erabiltzen ez badute.

Beren jarduera-eremuan, klima-aldaketaren aurka borrokatzeko politikak, ingurumena babestekoak eta lurraldearen zentzuzko antolamendu iraunkorraren aldekoak sustatu dituzte.

Sozietateko pertsona orok indarrean dagoen legeaz gain, segurtasunaren, laneko arriskuen prebentzioaren eta ingurumen-politikaren alorretan ezarritako barne-jarraibideak bete ditu.

5.- OBJEKTIBOTASUNA

Erabakiak hartzean, objektibotasuna erabiliko da pertsonekin, eta inpartzialtasuna legearen arabera onargarriak diren aukerekin.

Ez dute boterea erabiliko abantailak edo onurak lortzeko, bereziki beren jarduera betetzearen ondorioz sor daitezkeen edo harekin lotuta dauden abantailak lortzeko.

Ez dute eragingo pertsona baten mesedetan izapide administratiboak bizkortu edo ebatz daitezkeen, eta, bereziki, beren mesedetan edo beren familia edo gizarte-ingurunearen mesedetan.

6.- EFIKAZIA, EFIZIENTZIA ETA ERRENTAGARRITASUN SOZIALA

Sozietateko pertsonak efikazia, ekonomia eta efizientiaren printzipioen arabera jardungo dute, interes orokorra eta ezarritako helburuak betez beti ere.

Sozietateak bikaintasunaren bidez konpromisoa bere gain hartu eta sustatu du. ISO 9001 nazioarteko arauarekin bat etorriz jarduten du eta, jardura betetzean nahiz zerbitzuak ematerakoan, goreneko kalitate-maila eta bikaintasuna lortzea xedez hartu behar ditu. Era berean, berrikuntzaren, garapenaren eta etengabeko hobekuntzaren alde egingo du gehieneko kalitatea lortze aldera.

Sozietateko pertsona orok bere elkarlana, profesionaltasuna eta zerbitzu-mentalitatea emango ditu bere bezeroek dituzten aukerak ahalik eta hobeto asetzeko, eta beharrezko aldez aurretik ezagutzeko ahalegina egingo du.

Sozietateko pertsonak ez dute onartuko bezero edo hornitzaileen oparirik ez eta bestelako arretarik ere, baldin eta neurritz gainekoak badira eta beren jarduera baldintzatzen dutela interpreta badaiteke.

7.- DEDIKAZIO OSOA, FEDE ONA ETA EREDUGARRITASUNA

Sozietateko zuzendaritzak erantzukizuna du bere ekintzen bidez arauak betetzearen garrantzia erakusteko. Horretarako, edozein zalantza duten edo litezkeen arau-haustek jakinarazi nahi dituzten pertsonen esanetara jarriko da.

Sozietateko pertsonak dedikazio osoa eskainiko dute beren funtzioak betetzean, unean uneko bateraezintasun-erregimena fideltasunez betez eta beren jokabidea erreferentziazkoa izango da gainontzekoentzat.

Sozietateak edozein motatako jazarpen fisiko, psikologiko, moral edo agintekeria ukatzen du, bai eta larderiako edo pertsonen eskubideak eraso dezakeen ingurua sortzen duen bestelako portaerak ere.

Pertsona orok zintzoki eta errespetuz tratatu beharko ditu bere lankideak, nagusiak eta mendekoak, lan-giro atsegin, osasuntsu eta segurua lortzeko. Modu berean, Sozietateko pertsonen arteko eta enpresa kolaboratzaileen arteko harremanak errespetu profesionalean eta elkarlanean oinarrituko dira.

8.- AUSTERITATEA ETA ZINTZOTASUNA

Sozietateak austeritatez administratuko ditu esleitutako baliabide publikoak, eta ez ditu modu desegokian erabiliko; horretarako, modu arduratsuan kontsumituko du, eta baimenduta dituen protokolo-gastuaketa ordezkaritza-gastuak mugatuko ditu.

Kontratista, hornitzaile eta kanpo-kolaboratzaileak hautatzeko prozesuetan parte hartzen duten Sozietateko pertsonak inpartzialtasunez eta objektibotasunez jokatu beharko dute, unean uneko irizpideak aplikatuz. Ez da abantaila pribaturik onartuko; horrela, interes pertsonalak eta Sozietatearenak ez dira elkarren aurkakoak izango eta hautapen-prozesuan parte hartzea saihestuko da edo, gutxienez, egoera hori jakinaraziko da.

Sozietateko pertsonak ez dute onartuko bezero edo hornitzaileen oparirik ez eta bestelako arretarik ere, baldin eta neurritz gainekoak badira eta beren jarduera baldintzatzen dutela interpreta badaiteke.

9.- AUSTERITATEA ETA ZINTZOTASUNA

Sozietateko kide orok jarduerak betetzearekin edo eskumen-eremuarekin loturiko ekintzen gainean emandako informazioak egiazkoa, beharrezkoa eta osoa izan behar du.

Sozietateko pertsona orok guztiz isilpean gorde beharko du bere jarduera profesionala betetzerakoan eskura duen isilpeko informazio guztia, eta ez du informazio hori modu desegokian erabiliko bere edo hirugarrenen mesedetan, Taldean baja emanda dagoenean ere ez. Informazioaren izaera dela eta, edozein zalantzarik izanez gero, informazioa isilpekotzat hartuko da aurkakoa agintzen ez den bitartean.

10.- HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA LANKIDETZA. GOBERNU IREKIAREN PRINTZIBIOAK.

Bere kudeaketa interes-taldeetara bideratuta dagoela bermatuko du, emandako informazioaren, arretaren eta zerbitzuen kalitatea etengabe hobetzeko konpromisoarekin.

Interes-taldeek Sozietateak ematen dituen zerbitzuen funtzionamendua ezagutzeko eskubidea erabil dezaten sustatuko du, legeek ezartzen dituzten mugekin, eta eskaera, kexa edo erreklamazioei azkar eta eraeraginkorrean erantzuteko mekanismoak bermatuko ditu.

Sozietate abegikor eta hurbila bultzatuko dute, ulertzeko moduko hizkera garbia erabiliz, prozedurak erraztuz eta bizkortuz, zerbitzuetarako sarbide elektronikoak jarriz eta arau eta erregulazioen kalitatea hobetuz.

Bezeroek, enplegatuek edo beste pertsona batzuek emandako datu pertsonalak babestuko direla bermatuko du, eta konpromisoa hartuko du jarduera modu eraginkorrek kudeatzeko datu horiek baino ez dituela eskatu eta erabiliko.

Interes-taldeen parte-hartzea eta horiekin hitz egitea sustatuko du, parte-hartze eta kontsulta soilaz haratago, politiken diseinuan parte har dezaten lortzeko, eta, hartara, ezagutza eta berrikuntza bultzatzeko. Horretarako eskura dauden baliabide guztiak erabiliko dira, telematikoak barne.

11.- ERANTZUKIZUNA ETA ELKARLANA

Sozietateko pertsonak beren jardueren erantzukizuna onartuko dute, eta ez dute lankideen edota mendekoen gain jarriko arrazoi objektiborik gabe; horrez gain, maila instituzional guztiekin elkarlanean arituko dira, eskumenen egungo esparrua errespetatuz, interes orokorrari ahalik eta modu eraginkorrean laguntzeko.

Sozietateak sarean lan egitea eta ondo funtzionatzeko interesgarriak diren elkarlaneko ekintza eta lan guztietan parte hartzea sustatuko du.

12.- ETIKA ETA GOBERNU ONAREN KODEA BETETZEA

Kode honek, batik bat, izaera positiboa eta sustapenekoa dauka, moralarekin eta gizarte-praktikekin lotutako portaerak jasotzen baititu, lege-arauekin lotutakoak baino gehiago.

Nolanahi ere, kodea ondoriorik gabeko adierazpen hutsa izan ez dadin, ahalik eta zabalkunde handiena eman behar zaio, eta gainera, bete egingo dela bermatzea aldera, sistema hau ezartzea planteatzen da:

- Kodearen edukira atxikitze sistema: Sozietatean sartu aurretik kodearen edukiarekin ados zauden adierazpena egitean datza. Dagoeneko Sozietateko kide diren pertsonak ale bat jasoko dute aztertua izan dadin eta, hala badagokio, edukira atxiki daitezten. (Eranskina)

13- KOMUNIKAZIOA, HEDAPENA ETA SENTIBERATZEA

Kode hau Sozietateko pertsona orori aplikatzen zaienez, horiek guztiek izan behar dute horren berri. Kodeak berak eta bere edukiak hedapen zabala izango dute Sozietateak erabiltzen dituen ohiko euskarrietan. Bestalde, beste interes-talde batzuei informazioa emateari dagokionez, Kode hau kontsultarako eskuragarri egongo da.

ERANSKINA

ETIKA ETA GOBERNU ONAREN KODERA atxikitzeko adierazpena

Behean sinatzen duenak, 11/12/14ko Administrazio Kontseiluan onetsitako Etika eta Gobernu Onaren Kodearen edukiarekin bat etorriz, adierazten du:

- 1.- Goiburuan aipatutako Kodearen ale bat duela.
- 2.- SPRI Taldearen Etikaren eta Gobernu Onaren Kodea, Administrazio Kontseiluak goian adierazitako datan onartua, irakurri eta ulertu duela.
- 3.- Kodearen edukira atxikitzen dela baldintza guztietan, eta han adierazten diren printzipio eta betebeharrak guztiak betetzeko konpromisoa hartzen duela.
- 4.- Kodea hedatu eta aplikatu dadin errazteko konpromisoa onartzen duela.

.....

Eta hala jasota gera dadin, dagozkion ondorioetarako, honako hau sinatu dut Zamudion, 2012ko urtarrilaren bederatzian.

Izpta.:
(*pertsonaren izena*)

PARQUE TECNOLÓGICO-TEKNOLOGI ELKARTEGIA, S.A.